

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

696

36/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 28koa, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez izendatzen baita Goierri-Urola Garaiko ESIko Eskualdeko Erreferente Soziosanitarioaren eginkizunak beteko dituen pertsona, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean.

Bat etorrira Osasun Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuarekin (2022ko abenduaren 22ko EHAA, 243. zk.), zeinaren bidez ezarri baitziren gobernantza soziosanitarioaren definizioa eta lurralde-artikulazioa, eta bereziki, haren antolamendu funtzionala, kontsulta- eta partaidetza-organoetan eta koordinazio soziosanitarioko figuretan oinarrituta.

Ikusi da abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren 2. atala, lurralde-eremuaren eta kudeaketaren araberako koordinazio-figurei dagokienez; eta, bereziki, 45.3 artikulua, zeinak ezartzen baitu erreferente soziosanitarioaren figuraren izendapena erakundeko profesionalen artetik.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen martxoaren 27ko 123/2023 Ebazpenaren bidez, Asunción Lizarazu Escudero izendatu zen Goierri-Urola Garaiko ESIko eskualdeko erreferente soziosanitarioaren funtzioak betetzen zituen pertsona, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aurreko erreferente soziosanitarioaren erretiroa dela-eta, Ainara Esquisabel Goicoechea andrea izendatzen da Goierri-Urola Garaiko ESIko eskualdeko erreferente soziosanitario, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean.

Bigarrena.– Izendapen honek 2025eko urtarrilaren 28tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzari (Osasun Saila, Eusko Jaurларitza) ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2025eko urtarrilaren 28a.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
ANDREA GABILONDO CUELLAR.